



Arartekoaren ebazpena, 2008ko martxoaren 4koa. Horren bidez, Herrizaingo Sailari iradokitzen zaio herri ikuskizun eta adierazpenetan animaliak erabili ahal izateko aurretiko baimenaren arauzko garapena susta dezala.

Aurrekariak

1. Pertsona batek adierazi digu azter dezagula ea behar bezala betetzen den animaliak babesteko araudia Gasteizko ikastetxe batean urtero antolatzen diren jolas jardueretan.

Zehazki, kexak eskola-orduetatik kanpo ikastetxeko instalazioetan antolatutako ikuskizun bat zuen hizpide. Bertan, animaliak jartzen ziren ikusgai eta soka batekin lotutako zenbait abelburu txiki agertzen ziren saio bat ere bazegoen.

Kexa-idazkian adierazi eta argazkien bidez dokumentu zuenaren arabera, 2004an saio hori “sokamutur” tradizionalen modukoa bihurtu zen; alegia, soka batekin lotutako bigantxak ikastetxeko plazan askatzen ziren eta, bertan, jendeak inguratu eta dei egiten zien.

Egoera hori hainbatetan –azkena 2007ko martxoan– salatu da animaliak babesteko araudia betearazteko eta, hala bada, kasuan kasuko zigor neurriak gauzatzeko eskumenen bat duten administrazioetan (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala).

Beste zenbait konturen artean, erreklamatazaileak esan du ekitaldi horrek ez duela Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren baimenik, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. Horren arabera, abelburuak aske uzteko –hots, “sokamuturrak” edo animalia hiltzea ez dakarten antzeko beste batzuk antolatzeko– beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak ezarritako araudiarekin bat etorriko den baimena izatea.

2. Erreklamazio hau behar bezala izapidetze aldera, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari zuzendu gintzaizkion kasu honetan animaliak babesteko araudia eta, orobat, Legearen aginduak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko neurriak betetzearen inguruan zuen iritzia ezagutzeko.

Gure eskaerari erantzunez, Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak idazkia bidali zigun eta, bertan, administrazio organo horrek



egindako esku-hartzearen berri eman zigun. Zehazki, adierazi zigun, salaketaren ondoren, ikastetxera jo zuela informazioa biltzeko. Ikastetxeak honela erantzun zuen: “... ikastetxeak ez du inoiz jarduerarik antolatu bigantxekin, eta ez du, ezta ere, zezen ikuskizun tradizionalik antolatzeko asmorik ere”. Bestalde, jarduera hori garatzen duen enpresaburuak adierazi zuen ikuskizun horretan txahalak eta beste animalia batzuk hartzen zutela parte.

Adierazi zigutenaren arabera, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren irizpidea da ez dela zezen ikuskizunak erregulatzen duen araudia aplikatuko honako alderdi hauetakoren bat betetzen duten adierazpenetan:

- “1. Beste animalia-mota batzuk ere tartean izatea eta horiek, gutxienez, ikuskizunaren % 50 izatea.
2. Tartean den behi azienda ez izatea 70 kg-tik gorakoa eta saioan animaliak lotuta egotea.
3. Inola ere ez agertzea zezen ikuskizun gisa.
4. Animaliei tratu krudela edo tratu txarrak emateari buruzko debekuak errespetatzea.”

Arrazoibide horrekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak ondorioztatu du aurtan eta aurreko ikasturteetan ikastetxean egindako ikuskizunean ez dela antzeman ez jolas ikuskizunei eta jarduerari buruzko araudia ez animaliak babestekoa inola ere urratu direnik.

3. Erantzun horri dagokionez, Arartekoa berriz ere Herrizaingo Sailari zuzendu zitzaion eta zenbait gogoeta helarazi zizkion kasu honetarako eta, oro har, animaliak ikusgai jartzen diren eta lotutako bigantxarekin egindako saioa barneratzen duten ikuskizun mistoko beste kasu batzuetarako jarduteko dauden aukeren inguruan.

Zehazki, adierazi genuen 6/1993 Euskal Legeak, urriaren 29koak, animaliak babestekoak, honela dioela 4.6 artikuluan: “*Herri ikuskizun eta jaietan animaliek parte hartu ahal izateko administrazioaren baimena beharko da, Eusko Jaurlaritzak emango duen araudiari jarraiki*”.

Agindu hori arauz garatu ez izatearen kaltetan izan gabe, garbi dago, animaliak babesteko Legearen aipatu artikulua zuzenean aplikatuta, Administrazioak –hots, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak– aurretiazko



kontrola egin behar duela animaliek parte hartzen duten era guztietako herri ikuskizun eta jaietan.

Bestalde, “sokamuturrak” zezen ikuskizun tradizionaletarako ezarritako baldintzak bete behar zituela adierazi genuen oro har, bai, behintzat, ikuskizuna kontrolatzeari, segurtasunari eta 14 urtetik beherakoei parte hartzen ez uzteari zegokienez. Hori dela-eta, zalantzarik gabe, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ez luke baimendu behar ikastetxeetan inolako zezen ikuskizunik egitea jarduera hori animaliak erakustea baino zerbait gehiago denean eta bertan adingabeei modu aktiboan parte hartzen uzten zaienean.

4. Gure proposamenari erantzunez, Herrizaingo Sailak aurreko txostenetan jasotako arrazoibide berak azpimarratu ditu. Nolanahi ere, aipatu du jarduera hori ez litzatekeela ikuskizun publikotzat joko, 4/1995 Legeak, azaroaren 10ekoak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenak, 3. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, eskola-komunitateko kideei zuzendutako hezkuntza-testuinguruan garatzen den irakasjarduera dela uste baita. Horregatik, uste dute jarduera hori ezin daitekeela legez ikuskizun publiko gisa definitzen denaren barruan kokatu eta ezin onar daitekeela, ezta ere, legez “sokamuturra” gisa kalifikatzea.

Administrazio horiek helarazitako informazioa eta erakunde honek duen gainerako dokumentazioa eta informazioa ikusita, egoki iritzi diogu honako gogoeta hauek helarazteari:

Gogoetak

1. Aurreko gogoetak ikusita, zehaztu behar dugu gure esku-hartzearen xedea Eusko Jurlaritzak, Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren bidez, kexa-erreklamazioan deskribatutakoen moduko jarduerari dagokienez, alegia, lotutako abelburu txikiak ere tartean diren ikuskizun publikoetan edo jolas jardueretan animaliak ikusgai jartzekoei dagokienez, jarduteko zer aukera dituen jakitea zela.

Hori guztia ikastetxean egin izan daitekeen ekitaldiaren eduki zehatzaren kaltetan izan gabe. Bertan, animaliak izan dira tartean, baina Eusko Jurlaritzak ez du beharrezkotzat jo organoaren baimena behar izatea.



2. Erreklamazioa behar bezala izapidetze aldera, adierazi genuen bidezkoa zela animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4.6 artikuluan jasotako xedapena arauz garatzea, animaliak erakusgai jartzeko arauan ezarritako baimenaren jardun eremua mugatzearen ondorioetarako.

Artikulu horren agindua argia da. Eusko Jaurlaritzak arauz garatu behar ditu animaliek herri ikuskizun eta jaietan parte hartu ahal izatea baimentzeko baldintzak eta betekizunak.

Lege hori duela 14 urte baino gehiago sartu zen indarrean, baina oraindik ez da garatu. Araudi egokia izatea, gutxienez esku artean ditugun kasuetarako, oso garrantzitsua da.

Nolanahi ere, arauz garatuta ez egotea ez da oztopo jendea bildu eta horiek gozarazteko antolatzen diren eta animaliak tartean dituzten “*herri ikuskizun edo jaien*” gaineko aurretiazko kontrola egin diezaiola formalki eskatzeko Administrazioari.

Bestelako baldintzak bazter utzita, baimen hau eman ahal izateko, Administrazioak, lege testuak berak hala aginduta, ikuskizunean animaliei emango zaien tratua izan behar du kontuan eta saihestu egin behar du animaliak inolako justifikaziorik gabeko sufrimendua, kaltea edo larritasuna sor diezaiekeen edozer jardueraren pean jartzea, baita animaliak babesteko Legearen 4.2 f) artikulua dioen bezala, “*Animaliei ez dagozkien edo tratu iraingarria suposatzen duten jokabide eta jarrerak indarrez ezartzea*” ere. Garrantzitsua da administrazio horrek irizpide bat ezartzea halako ekitaldietan erabiltzen diren 70 kg-tik beherako txekor gazteak –gehienez ere bi hilabetekoak– erakusgai jartzeko moduari eta haiei eman beharreko tratuari dagokienez.

Ondorioz, azpimarratu behar dugu, animaliak herri ikuskizun eta jaietan erabili ahal izateko, beharrezkoa dela aurretiazko administrazio baimena izatea, Eusko Jaurlaritzak ezarri behar izango zituzkeen baldintzetan.

3. Jarduera hori jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen 4/1995 Legearen aplikazio araubidetik kanpo dagoela dioen arrazoibidea ez dator bat lege testu horrek jolas jarduerari buruz emandako definizioarekin.



Lege horren ondorioetarako, honako hauek dira jolas jarduerak –2. artikulua–: *“erakunde antolatzaile batek denborapasarako edo jostaketarako bere barrupe edo zerbitzuak eskainiz edota berak antolatutako ihardueretan parte hartzea eskainiz jendea biltzen dutenak”*.

Lege horren eranskinean jasotako jolas jardueren katalogoak berak berariaz aipatzen du animalia biziak erakusgai jartzea.

Gure iritziz, ez da egokia, ezta ere, jarduera hau pribatutzat hartu edo oinarrizko eskubide batez baliatzearen ondoriozkoa denik esatea; kasu honetan, irakaseremuari lotuta egongo litzateke. Ikastetxeak antolatutako ikuskizuna edo jaia irakaseremutik kanpo egiten da eta ikastetxeak berak jendea biltze aldera bertako instalazioetan sustatu eta antolatzen duen eskolaz kanpoko kultur jardueraren parte da.

4. Bestalde, eztabaidatu da ea lotutako txahalarekin egindako saioa zezen ikuskizun tradizionaltzat hartu behar den edo, gutxienez, noiz izango litzaiokeen aplikagarri animaliak babesteko legerian aurreikusitako araudia.

Arazo hau konpontzeko, Arartekoak adierazi du beharrezkoa dela xedapen orokorra onartzea eta, bertan, zezen ikuskizunen kategoria ezberdinak biltzea, betiere, garrantzi gutxiago izatearen ondorioz, animaliak babesteko 6/1993 Legearen 22. artikuluari jarraiki halako ikuskizun gisa hartzen ez badira; *“Lege honen ondorioetarako tradiziozko zezenketatzat joko dira entzierroak, ganadua jare uztea, larre-behiak, sokamuturrak eta animaliei odolezko zauririk egitea xede ez duten gisa bereko guztiak”*.

Eusko Jaurlaritza da zezen ikuskizun tradizionalen mota ezberdinak definitu eta kalifikatu ahal izateko kasuan kasuko arauzko garapena egiteko organoa. Kontua da, arauzko garapenik ez dagoen arte, Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasota dauden arauen publikotasunari, segurtasun juridikoari eta botere publikoen arbitrariotasunaren interdikzioari dagozkien printzipioen aurka dagoela instrukzio edo administrazio jarduera soilarekin bat etorritz legea aplikatzen salbuesten duten irizpideak aplikatzea.

Planteamendu horren aurka, Herrizaingo Sailak jakinarazi digu Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ez dituela *“zezen ikuskizun tradizionaltzat”* hartzen zenbait baldintza betetzen ez diren kasuak, esaterako, 70 kg-tik beherako



animaliak erabiltzea, zezen erakustaldiak ikuskizun gisa ez iragartzea eta animaliei tratu txarrak ez eragitea.

Alderantziz, erakunde honek adierazi zuen animaliak babesteko legearen hitzez hitzeko interpretazioak ez duela uzten legeko kategoria horri ikuskizun tradizionalen araudia ez aplikatzen. “Sokamuturra” hitzak, hain zuzen ere, “*soka batekin lotutako bigantxa eta txekor jokoa*” esan nahi du. Hau da, funtsezko alderdiak honakoak dira: abelburu txikiak erabiltzea, tamaina edo pisu zehatza adierazi gabe, eta horiek soka batekin lotzea, hura eusteko, parte-hartzaileak animaliarekin “jolasten” diren bitartean.

Horren haritik, ekainaren 20ko 315/1992 Dekretuak, zezen ikuskizun tradizionalak arautzen dituenak –Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak baliogabetzat jo zuenak–, ez du inolako definiziorik egiten era horretako ikuskizunen inguruan; abelburuek gehienez 310 kg izango dituztela baino ez du aipatzen. Era berean, Herrizaingo sailburuaren ekainaren 11ko Aginduak, zezen ikuskizun tradizionalak arautzen dituenak, “sokamuturra” izeneko ikuskizunetara edo soka batekin lotutako animaliak tartean diren eta abelburuak hiltzea ez dakarten “antzekoetara” zabaltzen du jarduteko eremua.

Eztabaidatutako ikuskizunak izan dezakeen garrantzi txikiagoaren kaltetan izan gabe, bertan, “sokamuturra” izenekoaren definizioa taxutzen duten elementuak ikus daitezke, besteak beste, lotutako animalia egon behar duela eta jendeak modu aktiboan parte hartu behar duela.

Esan behar dugu administrazioak horrela jarduteak ez duela uzten txostenean jasotako irizpidea aplikatu ahal izateko oinarrizko elementuak ezagutzen, esaterako, animalia pisua, abeltzainak ziurtatuta, edo ikuskizunaren deskripzio memoria, erakusketa edo “sokamuturra” den berresteko.

Gogoeta horiek ikusita, ondorioa da lotutako bigantxaren ikuskizuna, animalia pisua edo ikuskizunaren izena edozein direla ere, animaliak babesteko 6/1993 Legearen 22. artikulua zezen ikuskizun tradizionalen inguruan egiten duen definizioaren barruan kokatuta daudela eta, beraz –arazko garapen argitzaileagoaren kontura–, “sokamutur” edo antzekotzat kalifikatu behar litzatekeela.



Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, honako iradokizun hau egiten da:

1/2008 IRADOKIZUNA, martxoaren 4koa, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egina.

Animaliak tartean izango diren ikuskizun edo adierazpenak antolatzeko eskatu behar den baimenaren arauzko garapena ezar dezala, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 4.6 artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

Dagozkion neurriak ezar ditzala, administrazio eskudunak “sokamuturrari”, beti eta legeriak biltzen dituen kasu guztietan, aurretiazko kontrola egingo diola bermatzeko. Kontrol horren bidez, zezen ikuskizun tradizionalei buruzko araudian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, bereziki, herri ikuskizun edo jai horietarako baimena ukatzeari dagokionez, horietan adingabeek modu aktiboan parte hartuko dutela aurreikusita dagoenean.